

III. San Balentin Berrio-Otxoa Txapelketa

Elorrio, 2004.eko uztailaren 3a

Uztailaren 3an, Elorrioko Udalaren babesarekin, eta Euskadiko Kutxa eta Iturriozoren laguntzarekin, Zaldi Baltza Elorrioko Xake Taldeak III. San Balentin Berrio-Otxoa xake partida azkarren lehiaketa antolatuko du.

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Errioxa eta Kantabriatik etorritako 14 xake taldek parte hartu zuten eta partaideen arteko adiskidetasuna eta kiroltasuna nagusi izan zirelarik.

Lehiaketan izandako joko maila altuaren adierazle da sailkapeneko lehen postuetako berdintasuna, adierazgarria da lehen eta laugarren postuen arteko diferentzia puntu t'erdikoa izan dela. Lehiaketako garailea ERMUTARRAK xake taldea izan da 40,5 punturekin, eta ZALDI BALTZA ELORRIOko xake taldea 39 punturekin 4. postuan sailkatu da.

Aipatzekoa da lehiaketako lehen tablero honena Zaldi Baltzako Iñigo Axpe elorriarra izan dela 11,5 punturekin (11 garaipen, berdinketa 1 eta galdutako 1). Portugaleteko lehen tableroak, Ayestak, eta Zornotzakoak, Ariasek ere lan bikaina egin dute, bakoitzak 10,5 puntu lortu dituelarik. Eta S.A.Logroñesako lehen tableroak: Errioxako txapeldun den Diego Lorenteren lana ere bikaina izan zen 10 punturekin.

ZALDI BALTZA ELORRIO A taldearen partaideak hauek izan ziren:

- 1- Iñigo Axpe 11,5 puntu
- 2- Alberto Sardon 7,5 puntu
- 3- Eduardo Sardon 11 puntu
- 4- Jon Regillaga 9 puntu

SAILKAPEN OROKORRA

- 1- ERMUTARRAK 40,5
- 2- ZORNOTZA 40
- 3- FOMENTO-BERAUN (Errenteria) 39
- 4- ZALDI BALTZA A (Elorrio) 39
- 5- PORTUGALETE 35
- 6- S.A.LOGROÑESA 33
- 7- ARRASATE 31,5
- 8- EIBAR 26
- 9- CASTRO 19,5
- 10- JOKIN ERDOZIA (Lekeitio) 14,5
- 11- ABADIÑO 14,5
- 12- GETXO 14,5
- 13- LAUDIO 11
- 14- ZALDI BALTZA B (Elorrio) 6